

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5216

2139/2015 EBAZPENA, azaroaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Olvido Martínez Fernández andrea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzen duena eta zerbitzu berezietako egoeran deklaritzen duena.

Aztertu dugu Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urriaren 13ko 1881/2015 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2015eko urriaren 19ko EHAAn (198.zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, bai eta bere ezaugarri profesionalak «curriculum vitae 175»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Olvido Martínez Fernández andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Olvido Martínez Fernández andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko erizainaren lanpostu funtzionalaren 15800 plazaren jabea dena, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ofizioz deklaratu behar da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olvido Martínez Fernández andrea izendatzea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2015eko azaroaren 19tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.